



Eskualdeko hainbat baserri dira dagoeneko Sutearoko bazkide.

Bazkideen sostenguz, bazkideendako babes

Landa eremuko eraikinei babesa eman guran sortu zen Sutearo Elkarrri Laguntzeko Erakundea. Gaur-gaurkoz, 4.200 bazkide inguru ditu. Eta horiek, nola ez, funtsezko dira erakundearendako: eurak dira egitasmoaren sostengu

Ohikotasunaz gaindi, landa eremuko eraikinetako jabeek babesa eman guran sortu zen Sutearo Elkarrri Laguntzeko Erakundea. Eta irabazi asmorik gabe dihardu ordutik. Hori horrela, erdigunean jarriak ditu bazkideak: eurak dira laguntzak eta erakundearen funtzio arauak erabakitzen dituztenak –eredu asanblearioan dihardute–. "Ez gara aseguru konpainia bat. Elkartasuna, autogestioa eta partaidetza ditugularik ardatz", azaldu dute erakundeak kideek.

Gauzak horrela, gizartearen eskakizun berrietara moldatzen dihardute etengabe –beti ere, atzera begirakoa akorduan mantenduz–. Eta horretan geratu

barik, aurre egina diete urteetan topatutako traba eta oztopoei. Bada, gaur-gaurkoz, anitzak dira jo puntuan dituzten kalteak: suteak, elurteak, tximistak, euriteak, harriak, urak eragindakoak, lapurretak, erantzukizun zibiletik datozen kalteak... –bazkideen ekarpenekin egiten diete aurre halakoei–. Erabili ez den dirua, bestalde, bazkideen poltsan sartuko lukete, aurrera begirakoei heltzeko.

Bazkideekin, batzarrak

Esan moduan, Sutearok bazkideak ditu oinarrian. Eta aldian aldiko batzarrak dituzte erabakitze esparru nagusi. Hain zuzen ere, ohikoan, bazkide bakoitzak

batzar baterako deia jasotzen du urtean–zonaldearen arabera antolatutako 39 elkarte edo ermandetan banatuta daude horiek–.

Ostean, Federazioa litzateke horien lotzaile; urtean behin batzartzen dira hori osatzen duten elkarte edo ermandadeak. Zehatz esanda, urteak eman duena azaltzeaz aparte –balantzea, bazkide kopuruan izandako gorabeherak, aldaketak...–, bazkideen ekarpenak jasotzeko esparru dira halako bilkurak.

Eta, nola ez, eskubide berdinak dituzte bazkide guztiak: "Boto eskubide berbera dugu denok, babestutako etxe kopurua eta horien balioa edozein izanda

ere". Eta bide beretik dihardute gainerakoan: guztiak eskubide berdinak dituzte laguntzak jasotzeko, erakundeak aginte organoko kideak aukeratzeko –edo, aukeratuak izateko–, erakundeari eskatutako informazioa jasotzeko...

Datu baikorrak

Gaur-gaurkoz, 4.200 bazkide inguruk du bat egina egitasmoarekin –oro har, 5.000 etxebizitza inguru leudeke Sutearen babespean–. Eta, nola ez, atek zabalik dituzte proiektuaren parte bilakatu gura duenarendako. Interesa duenak, 946 300 062 edo 660 396 700 telefono zenbakietara dei dezake. "Ostean etxea ikustera joango ginatkegeu, proiektua azaldu eta aurrekontua egiteko, besteak beste", argitu dute erakundeak. Hain justu ere, etxearen balioaren

araberako ekarpena egin behar luke bazkide bakoitzak.

Prebentzio lana

Eta prebentzio lanarekin ere badihardu Sutearok, etxeetako jabeek izan ditzaketen kalteen inguruko informazioa eta aholkuak emanez. Hala, horri begirako hainbat egitasmo izan dituzte martxan. Hainbaten artean, su-itxalgailuak dituzte jarriak babestutako etxebizitza guztietan, tximistek eragin ditzaketen kalteak ekiditeko informazioa dute banatuta, tximinia garbitzearen garrantziaz jardunak dira...

"ELKARTASUNA, AUTOGESTIOA ETA PARTAIDETZA DITUGU ARDATZ. EZ GARA ASEGURU KONPAINIA"

Sutearen esparrua



BIZKAIA

Abadino, Ajangiz, Amoroto, Arratzu, Arrieta, Atxondo, Aulesti, Barinaga, Berriatua, Bolibar, Busturia, Dima, Elorrio, Erandio, Errigoiti, Etxano, Etxebarria, Foru, Fruiz, Ispaster, Leioa, Mallabia, Markina, Mendata, Mendexa, Munitibar, Murueta, Muxika, Nabarniz, Orozko, Otxandio, Txorierri, Zeanuri eta Zeberio.

GIPUZKOA

Angiozar, Ezkio-Itsaso, Gabiria eta Urretxu.

ARABA

Mendoza.



Jauregizar 10 behea, 48340 Amorebieta-Etxano • Tel.: 946 30 00 62 – 660 39 67 00

Whatsapp: 660 39 67 01 • sutearo@sutearo.eus

